

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

211n. zenbakia
urrilla 1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ONAINDIA'TAR SANTI AITA'RI
- OMENALDIA
- IRUDIA
AMOREBIETA'n 1996-10-16

EUSKERAZAINTZA
EUSKERAREN ERRI AKADEMIA'K

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K
1996-97 IKASTURTEA

OGEITABEDERATZIGARRENA BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 16.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22
BILBAO

29° CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 16.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

IA GUREAK EGIN DAU! ALA EZ?

Ia gureak egin dau. Ala ez? Gaixoak ez dauka itxura onik beintzat. Bizkaiera gaixorik dago. zauri larriak daukaz, geroago eta larriagoak, batez ere batzuk ez daukelako inolako gogorik zauri orreek osatu daitezana. are geiago, zenbat eta larriagoak izan, eurak pozago.

Bataren baten ustetan, ilko haltz obeto.

Eta zer da bizkaitarrok, edo zeatzago esanda, bizkaieraren alde gagozanok egiten doguna?

Negar, malkoak isuri. Or gabilz mokoia dariola. zotinka, ogi siku zati baten erreguka. Eure artean gagozanean batzutan negarra asarre bizia biurtzen da. "arerioari" zintzurra ebagitze-ko gogoia azaltzen da: haina benetako ordua eltzen danean, zera! Berak daukanez diruaren iturriko Qiltza, barriro negar malkoak atara bear dira/ogi siku apur bat lortzeko, ia orrela gure bizkaiera gaixo Iarriari "aspirina" bat emon geinkon.

Alako panoramea! Baina egoera txarto jarri badot. ilunago izan daiteke oraindino. Izan daiteke ez, izatez da.

Burura jatort euskerari buruzko esaten zan a: "Euskerea ez da ilko ez dakienak ez daualako ikasten, dakienak ez daualako erabilalen baino".

Badaukat susmo txar bat gure euskalki onegaz ez ete dan antzerako zeozer gertatzen.

Zer dala eta bizkaieraren makaltasuna? Zergaitik dago dagoen moduan, estualdi luze onetan sartuta? Zer dala eta ez dauka indar geiago? Arerioa gogorragoa dalako ala geuk ez dogulako indar naikorik egiten?

Argi dagoana zera da: Geuk ez badogu egiten ez jaku inor etorriko dagoen zulotik ataratzera.

Egoera okerraren adibiderik onenetarikoa irakaskintzan daukan agerrera edo "presentzia" da.

Aurreko baten "negarrez haina itxaropentsu" agertzen nintzan aldizkari onen orrialdeetara arte barria artzeko. Gaur negarrez baino ez. itxaropena galtzen dan azkenengo gauza izan arren. arlo onetan naiko galduta daukat eta.

Irakaskintzaren "errefurma" dala eta, euskalki onek beste belarriondoko bat arte dau. Eta oraingoan errua ez dauka kanpoko inork, ez dogu arerioa auzoan bilatu bear, etxean aurkitu geinke eta. Oraingoan etsaia, adarduna, buztanduna, sardea eskuan daukan deabrua ez da kanpotik etorri. Geurea da errua.

Salbatzaile eta askatzaileen zai gagozala beti emoten dau. Eta agertzen diranean, abertzale barik "a-ver-que-sale"ak direla konturatzen gara, euskeraren aldeko maitasuna agertzen daben arren diruarenganako maitasunak bulizatzen dauazala ikusten da.

Eta ordutm gure asarrea agertzen da. Baina zer gertatzen da askatzaile edo salbatzaileak geu izan bear garanean? Zorionez (!?!?!?) heti dago diruaren atxakia. eta era orretan errua beste batzuei botaz geure burua zuritu geinke: Zera, a edo ori egiteko dirurik ez dagoanez (edo ez deuskuenez emoten) ba. ezin da egin (barriro negarrera jotzen da).

Orain arte bizkaierazko irakaskuntza eskeintzen izan daben ikastetxe eta ikastolak gitxi izan badira, orain murriztu egin direla esateko modua gagoz.

Eta ez goiko bataren bat etorri dalako ori olan izan bear dala esaten. Testu liburuen ezak asko lagundu dau orretan.

Ibaizabal argitaletxeak (bizkaierazko liburuez ikastolak ornitzen izan dauzana) 12 urtetik gorako ikasleentzat testu liburu bi baino ez dauz argitaratu bizkaieraz: erlijikoa eta euskera-koa. Eta gainontzekoak? Ba, beste guztiak batueraz edo erderaz.

Egoera polita henetan. Ikastoletan ia testu guztiak batueraz eta euskal izkuntzarena bizkaieraz. Badirudi euskerea-bizkaiera frantsesa, ingelesa edo gazteleraren antzerakoa dala. Erabiltzen dan izkuntzatik aparte ikasten dan beste izkuntza bat.

Eta badakizu. irakurle, zergaitik ez dagoan testu liburu geiagorik bizkaieraz? Ba, galerarik ez daiten egon (ez nago irabazkinez berbetan galera ezari buruz baino) 400 aleren salmenta ziurtatu bear dalako, eta argitaletxeak, ikastetxeen artean egindako galdeketaren ostean ez dauanez erantzunik jaso, ez daualako euki orrenbesteko eskaririk egongo danaren itxaropenik.

Orain arte bezero izan diran ikastetxe eta ikastolak ez deustoe ziurtatu ikasturte onetan bere liburuak erabiliko dabezanik. Arrazoa? Batek daki! Obeto esanda, norberak daki!

Itxaropena ez galtzeko Iburuek gogoko ez debezalako euren kontura konponduko direla, haina bizkaieragaz jarraiturik (ni bai inuxentea!) pentsatu gura dot. Ez daukat arremonekonomikorik argitaletxe onegaz, are geiago. baditut kexka batzuk eta orain arte ataratako liburu batzuk obetu bear direla uste dot. errebisio sakon bat bear daua irakasleek ez dagien orrenbeste moldaketa egin bear klase barruan erabiltzeko.

Jakina onek bezero-saltzaile baino arremone estuago bat eskatzen dau alde bietatik. Batetik, irakasleen aldetik. zeintzuk diran obetu bearrak azaldu, konponbideak eta orientabideak emon. azken brtean eurena da esperientzia eta. Eta beste aldetik, argitaletxearenetik, entzuteko eta aldaketa orreek egiteko prest egon.

Au onela maai gainean ipinita, edonor egongo dala ados uste dot. Baina betikoa gertatuko ete da? Lana ondo dago, haina beste baten kontura dan artean, norberak egin bear badau beste txori baten kontua da eta. Baina joan zaitez edonorrengana eta galdetu eiozu orren bearrizanik dagoen ala ez. Baietz danak derrigorrezkoa dala esan!

Borondaterik ez dala faltako suposatzen da, baina kontuz, ea soldadiskako ausardiagaz gertatzen dana ez ete dan gertatzen, an ere ausardia suposatu egiten da.

ENRIKE ITXASALDE

OBETU DAGIGUN GURE EUSKERA (VIII)

GALDEGAIA-2

Euskerak berariazko berezitasun bat dauko. Alboko izkuntzak ez daukena. Esaldiari bizitasuna, txairotasuna eta dotoretasuna damotsazan apartekotasun bakana.

Esakuntza baten bi, iru (eta geiago) esakizun edo adierazkizun izan daitezke. Euskeraz diardugunean, baiña, jakinkizun edo adierazkizun orreetatik bat batez be agerrazoten dogu. Esangura bat nabarmentzen, bat beste guztien gaiñetik agertzen. Zer adierazo gura dogun eta axe. Esakunaren adierazkizun onixi deritxogu "galdegaia", "elemento inquirido" edo "concepto primordial", aurreko lantxoan aditzen emon genduan.

Jakingarri au adibide baten bitartez argituko dot.

Ez da bardin:

- "Aita atzo oiñez eta mendiz etorri zan semeagaz etxera".
- "Aita atzo etorri zan oiñez eta mendiz semeagaz etxera".
- "Aita etxera etorri zan atzo oiñez eta mendiz semeagaz".
- "Aita atzo semeagaz etorri zan oiñez eta mendiz etxera".
- "Aita atzo semeagaz oiñez eta mendiz etxera etorri egin zan".

Ona emen *sei* esakuntza esangura bestelakoa dabenak. "Belarria" euskerara eginda dabenak bereala antz emongo dautsoe bestelakotasunari edo esaldion artean daukagun aldeari. Euskal sena galdurik daukanak, barriz, ez dautso antzik emongo.

Leenengo esaldian aita *zelan* etorri zan itaunari erantzuten dautsagu: *oiñez* eta *mendiz* etorri zala.

Bigarrenean, *noiz* etorri zan: *atzo* etorri zala.

Irugarrenean, *nora* etorri zan: *etxera* etorri zala.

Laugarrenean, *nogaz* etorri zan: *semeagaz* etorri zala.

Bostgarrenan, *nor* etorri zan: *aita* etorri zala.

Seigarrenean, aitak *zer* egin eban: *etxera etorri egin* zala.

Euskaldun-euskaldunak sei esankizun edo adierazkizun onetatik *bat* aukeratzen dau esaldia bakotxean, au da, unada aretan *zer* aditzen emon gura dauan eta axe, eta orri darantzutson berbea aditzaren aurre-aurrean ipiñiko dau. Aita *zelan* etorri zan, edo *noiz*, edo *nora*, edo *nogaz*, edo *nor*, edo aitak *zer* egin eban. Burukakizun edo esangura orixe nabarmentzen, nagusitzen eta gaillurtzen da beste guztien gaiñetik edo berau *azpimarratzen* dogu, eta jarduera onen arabera ezarten ditu gero beste osagaiak esakunean. Orduan joskera ona eta zuzena da. Onan esaldia batetik bestera eta besteetara bestelakotasun edo alde aundia izan oi da.

Euskerak baiño ez daukan aalbidea da au. Inguruko beste izkuntzak orrelango bururakizuna edo agergarria gaillurtu edo azpimarratu nai izateko, itz-joko berezi batera jo bear dabe. Esate baterako: "fue a pie y por el monte como vino...", "fue ayer cuando vino...", "fue a casa a donde vino...", "fue con el hijo con quien...", eta abar.

Euskeraz errezago, laburrago, dotoreago, biziago egin oi da ori: berba ori (edo berba orreek) aditzaren aurre-aurrean bitarteko barik ezarri eta kito.

Altube maixu bikaiñak (beste batzuk be bai) idaztarau auxe damosku euskeraz zuzen idazteko. Eta esaldiaren beste zatiak galdegaiaren eta aditzaren aurrekaldean zein beste kaldean ezarri daitezke. Ikusi:

- "Aita atzo semeagaz etxera *oiñez* eta *mendiz* etorri zan" (zuzen).

edo: - "*Oiñez* eta *mendiz* etorri zan aita atzo semeagaz etxera" (zuzen).

edo:- "Semeagaz etxera *oiñez* eta *mendiz* etorri zan atzo aita" (zuzen).

Edozein eratarau euskal joskera ona eta jatorra da.

Au da:

Idazkeran lege nagusi au gorde ezkeru, beste betebearrik ez daukagula esan leiteke. Euskal joskera zuzena eta jatorra beti izango da. Ondorenez, auxe: au egin ezkeru, "lapikokoa" -baserriko esakera ekarririk- gozua izango da. Au egin ez badadi, "garratza" izango da, eta "iruntsi-eziñekoa" bearbada.

Esaldiko aditza jokatu baga dagoanean bakarrik austen da arau au, dirausku Altube maixuak. ("Erderismos", 12 orri.). Adibidez:

- "*Nok* (galdegaia) ari esan?"

- "*Zergaitik* (galdegaia) beti umekerietan ibilli?"

Galdegaia ez dau itz batek edo bik soillik egiten, itzzerrenda luzea be izan daiteke, baita esakuntza osoa edo bi (eta geiago) be. Lau edo bost (edo geiago) esakuntza batabestaren ondoren ekar badadiz, batek galdegaiarena egin dagike, eta onangoan esakun ori esaldi nagusiaren aditzaren aurre-aurrean ezarri oi da, euskal joskera jatorra izan daiten. Agerbidez:

- "Etxe barria *noiz* egingo dozue?", itaun egin badadi,

onan erantzun daiteke: "*Osabea Ameriketatik etor dakigunean* eta gure etxearen alboko lur-sati ori saldu dagigunean egingo dogu etxe barria". Azpimarratu dodazan itz guztiak egiten dabe galdegaia. Orregaitik, *egingo dogu* esaldiko aditzaren aurre-aurrean ezarten dira. Onan be erantzun lei: "Osabea Ameriketatik... eta etxearen... saldu dagigunean, *orduantxe* egingo dogu etxe barria". Emen "orduantxe" itzak beste guztien ordezkotza artzen dau eta galdegaiarena beronek egiten, eta itz auxe aditzaren aurrean ezarritz, joskera guztiz jatorra da. Baiña ez litzateke euskal joskera zuzena onango au izango: "Etxe barria egingo dogu osabea Ameriketatik..." au erdel kutsuko joskera da. Onango joskera ekarten eben, esaterako, antxiñako dotriña zaarrak. "Nor da Jaungoikoa?", itandu ezkeru, erantzun auxe ekarten eben: "Jaungoikoa *da* gauza guztian asiera...", "Jaungoikoa gauza guztian asiera ... *da*", esan bearrean.

Galdegaia iñoiz *aditza bera* izaten da. Onangoetan zer egin bear dan euskera zuzena eta jatorra izateko, urrengo lantxoan azalduko dogu.

AGIRREGABIRIA

EUSKEREAREN OSASUNA BAKION

Baten batek euskerearen osasuna Bakion ona dala uste izango dau. Ez dago besterik, baina, eguneroko errealitatetik asagoen dagoanik.

Orokorrean, euskerea inoizkorik babestuen eta baita birreskuratze bide ukoezinean be dagoala uste izaten dogun bitartean, euskerearen alarma-argi gorri guztiak isetuta dagoz. Gaur eguneko egoereari berealako urten-bidea ez bajako egiten, euskerearen eriotza soziala urte gitxi barru jazo leiteke.

Euskerea Bakion kinka larrian dagoana ukoezina da. Onetaz ez oartutea itsukeria baino ez da. Osterantzean, ara:

euskaldun elebakarrik ez dago, au da, erderarik ez dakianik ez dago.

biztanlegoaren %73k, gitxi gorabehera, euskerea eta erderean egin daike. Oneentzat euskeraz egiteko aukerak gitxiagotuten jakez beste %27 eta udartiarren eraginez. Ia ezinezkoa egiten joko inori Bakion euskera utsez bizitea, udan batez be. sendiaren bidezko izkuntza igorpena eten egin da ikaragarriro.

elduen artean ia inork ez dau alfabetatze ikastaroetan esku artuten.

kaleko euskera erabilpen maila ia utsaren urrengo da, zaar batzuen artean izan ezik.

gazteengan, geienok eurok euskaldunak izanda, ez da euskeraz egiteko gogorik asmetan. Are geiago, euskerearenganako zeozelango nekea igarten jake, gorrotoa ez esateko. Ondorioz, aal daben guztietan ez dabe euskerarik egiten.

Eritxiak eritxi, euskerearen ganean lortu edo azaldu ten deuskuezan emoitzak edo zertzeladak ulertuteko era ezbardinak egon arren be, azken baten, emoitzak emoitiz izanda, danontzako berberak dira. Bakotzak odorioa atara bei.

Aspalditik, izkuntza ordezkapen bide gogorrean sartuta gagoz. Erdereak euskereari eremua apurka-apurka janez, jaun ta jaube biurtu da. Egoera au susterretik aldatuten ez badogu, Aitorren Izkuntza Zaarra ilotz lotuko da.

Arazoaren inguruan bi dira giltzarritzat jo geinkezan itaunak:

- 1.- Ez dabe erakundeek euskerea birreskuratuteko beste bitartekorik eta gaitasunik ala?

- 2.- Zelan egin dakikeo aurre-aitatutako ordezkapen arazo orreri, gero, euskerearen birreskurapena Totu daikegun?

Leenengo itaunari gagokozala, esan bear, euskerearen eriotza soziala ez dala inoiz Bakion ain ur egon. Beste aldetik, ez dogu egundo onenbeste bitarteko eta tresna euki bere normalizazinoa lortu aal daigun. Euskerearen birreskurapena lortutea aalezkoa da izan. Daukaguzan tresnak zelan darabilguzan, berorretan datza arrakastea ala porrota.

Aaleginak aalegin. erri erakundeek euskerearen aldeko aalegina egiten ez badabe be, ezin izango dogu euskerearen nagusitasuna lortu. Baina, orrelango ekintzetan erriari jagokon eskuartzea ukatuz eta eurak erakundeek monopolizatuz ez dago bape zer eginik.

Leenengo ta bein, erakundeek euskerearen alde jokatuz, jarrera zintzoa arte bearko leukee, kontzientzia eta borondate politikoa erakutsiz. Urrengoan, azterketa soziolinguistikoko egoki eta benetako baten ondorioz, euskerearen normalkuntzarako *PLANGINTZA OROKORRA* sortutea izango litzake biderik onena. Au, erriko indar biziak alkarlanean, jakina. Erriari eskuartzea ukatutea burugogorkeria eta uts aundia litzake eta. Itsukeria, jauntxukeria, azken baten. Euskerearen birreskurapena ez da idazgoetako ekintzez bakarrik lortuko, erabiliaz baino, eta erabilera erriari jagoko eta berak erriak ziurtatu bear dau.

Ezin leiteke diru publikoaren erabilera alderdikoia egin. Alderdikeriak eta politikeriak albo baten baztartzuz eta eztabaida tekniko bultzatuz, aurrera egitea jaretsiko dogu. Izkuntza Plangintza arrakastatsuen azken ezau-garria bitartekoen erabilera egokian litzake eta. Diru publiko euskerearen Plangintza sakon besteko serioa egiteko erabili bear dogu. Orren ardurea eta kontrola Udalaren esku egongo litzakez, jakina!

Artean, egin daigun gure eskueran dagoana, arean da, aal dogun ginoan, *EUSKERAZ BIZI*. Aalegindu gaitzean, beintzat! !

Gure arbasoengandik artu dogun ondarrerik beinena euskerea da eta. Esku artean daukagun erantzizkizuna itzela da. Ez daiegun utsik egin!

INIAKI MARTIARTU

GERONA'KO GOTZAI A ETA TOKIAN- TOKIKO IZKUNTZAK BERE BALIOA BADAUN DOKUMENTU BAT

Toki atsegiña da benetan Markiña. Eta Markiña'n Aita Karmeldarren konbentuan, igarortzen dodaz nik aspaldidanik, amabost-ogei egunez, nere udako opor-rak.

Eta badot adiskidetasun ederrik egiña, Markiña'ko jende atsegiñen artean.

Adiskide oietan, bat, Xabier Matute, benetan onartzen dodan gizona. Abertzale zintzo ta langillea da Xabier. Euskalzale jatorra; Erriko Euskeren maitale sutua, eta, jakiña, bera bizkaitarra dalarik, Bizkaieraren babesle sendoa. Izanere, ain da ederra!, ain da atsegiña!, ain da polita Markiña'ko bizkaiera gozoa!

Bein, Euskera bizi daiten, Bizkai'n bizkaiera lan- tzea eta babestea bear-bearrezko gauza zala-ta..., alkarrekin berbetan ari gintzazala, Gerona'ko Gotzaiak, Katalaunieraren alde idatzitakoa gogora etorri yakun (1).

Gogor eraso eutsoen Gotzai ari España'ko irrati eta telebista fatxista marrulariek, orrelakoetan beti egin izan daben lez, baiñan arrazoi guztia, osoki, Gotzaiarena zan.

Au zan ba, Gotzaiak esandakoaren gunea:

"Katalauni'n, Katalauni'ko izkuntza bakarra, Katalauniera da. Beste izkuntza guztiak, naiz gure eraspén osoa merezi, Katalauni'n, erbestetik etorritako izkuntz atzerritarrak dira".

* * *

– Gerona'ko Gotzai orrek Katalauni'ko izkuntzaz esan dauskunak oso-osoan balio dau Euskerarentzat ere.

– Bai, Xabier. Oso-osoan balio dau. Euzkadi'n ere

Euskera bait da Euzkadi'ko izkuntza bakara. Beste izkuntza guztiak, gaztelera eta frantzera adibidez, naiz gure eraspén osoa merezi daben izkerak izan, erbestetik etorritako izkuntz atzerritarrak dira. Baita "eusko-oldozkeraren munduko atzerri illun" batetik ekarrita, indarrez sartu nai douskuen "el batua" ori ere, naiz onek, asmo oker biurriz sortua izan zalako, beste aiek merezi daben eraspénik merezi ez.

– Zeuk bezala pentsatu izan dot nik ere beti, Don Bixente. Ez al yazu iduritzen gure esker ona merezi daua Gerona'ko Gotzai Jaun adoretzu orrek?

– Bai orixe! Zergaitik ez diozu zuk eskerrak eman ez idazten. Ziurki, gutun bat baiño geiago jasoko ebazan, esan dauna gaitzetsiz. Pozik artuko dau zurea, esan daunagaitik eskerrak emonez.

Eta, baita Xabierr'ek Gotzaiari laister idatzi! Eta baita Gotzaiak erantzun ere!

Gaur ekarri daustaz, Xebierr'ek, igazko bere esku- titza eta gotzaiaren erantzuna.

Xabierr'ek, jakiña, katalaunieraz ez dakin ezker- o, gaztelera egin eutson bere gutuna, eta ona, neuk eus- keratuta, gutun orren mamia:

"Jaun gurena:

"Bizkaitar xume bat besterik ez naiz, baiña nere erriko izkuntzaren eta kulturaren maitalea. Jakin dot, zeuk Katalauni'ko izkuntzaren alde egin dozun babesketa, eta, baita, ondorioz sortu dautsuen zarata zakarra. Nik orde, esan dozunagaitik zorionak ema- teko eta gure esker ona aiderazteko zuri gutun au idaztea erabaki dot.

Askok, dirudianez, Batikano'ko II Konatzilioa ger-

(1) Nik, nere idazki guztietan, Elizaren Edestiari-buruzko liburuetan adibidez, GERONA idatzi izan dot beti uri aren izena. Zergaitik? Izen ori idazten, aurrenekoak, elendarrak izana ziralako, eta, cleneraz, "G" ori, gure euskerean lez, era goxoan agoskatzen dalako, eta ez, gaztelera bezala, "J"ren antzera. Katalauniarrek, gaur, Girona idazten dabe; baiñan ori, izkuntza guztietan aurki daikegun, "E" izkia "I" biurtzeko oituraren ondorioa besterik ez da. Euskal-itxura aundiko izena dogu Gerona. Ez bedi iñor arritu. Krist'aurreko VI mendean beste iñor baiño leenago elendarrak Lurrarteko edo Mediterran itxasoaren ertz artara iritxi ziranean, euskera bait zan lurralde aie- tako izkuntza. (Ikus argitaratu-barria dodan " *Euskal-Kr stauJasunaren Sorkuuta* " izeneko liburua).

tatu zala, eta Kontzilio orrek, latiniari zor yakon eraspenik galdetzeke, mundu guztiko kulturak onartuta, tokian-tokiko izkuntzak ere liturgirako artu ebazala ez daki.

Gaiñera, gotzai jauna, ezapaizok ere elizkide geraririk, arazo auetaz zer ezanik badogula induritzen yat.

Eskerrikasko, beraz, Jauna, eta nere eskerrik beronarekin batera, nere agurrik eraspentsuena zuretzat".

Eta, ona, orain, emen, Gerona'ko Gotzai Jaunaren erantzuna: Ez dot euskeratuko, dokumentu lez agertzen dodan ezkerero. Dokumentuek, idatziak izan diran izkeratik beste batera aldatzerakoan beren balioaren erdia galtzen dabelako:

"El Obispo de Girona

"30-IX-95

"Sr. D. Xabier Matute

"Markina

"Distinguido Sr.:

"Recibi su carta del d(a primero del actual. Agradezco sus palabras de animo. Ud. y los suyos son capaces de entendernos porque tambien se encuentran en situacion de acoso del que ve *gigantes* cuando son *molinos de viento*. Mantengamos la serenidad y dejemos que la razon se abra paso.

"Afectuosamente,

"+ Jaime Camprodon

"Obispo de Girona".

Gerona'ko Gotzaiaren euskutizat "gigantes" eta "molinos de viento" oiek, neuk azpimarratu deusuedaz, katalauniarren eta euskotarren arteko ezberdintasuan adierazteko oso egokiak dirala uste izan dodalako.

Izan ere, Gerona'ko gotzaiarentzat "aize-igarak" besterik ez diran auzi auek, egiazko "erraldoiak" bait dira euskotarrantzat.

Katalauniarrek, -Pujol "Generalitat"eko Lendakaria, Gerona'ko Gotzaia, eta Lerida'ko landetan lan egiten daben "payesak"—naiz Katalauni'ren maitale gartsuak izan, españiarrak dira gogoz eta bioatzez. Ez dira, gure berbeta-eraz, "nazionalistak"; soilki, "rejonalistak" dira. Ez dabe Katalauni Españi'gandik bereizi nai. Ez dabe yaretasun osorik eskatzen. Autonomi aundi batekin naikoa dabe pozik eta doatsu gelditzeko.

Orregaitik, beti Españi'ren altzoan bizi gura dabelako, Pujol Lendakariarentzat, Gerona'ko Gotzaiarentzat, eta Lerida'ko "paiyes"entzat, izkuntzari-buruzko arazoak "aize-errotak" besterik ez dira, eta, beraien ustez, Mantxa'ko On Kixote'k egin eban erokeri bera egiten dabe Españi'ko jaurleek, "aize-errotei", "erraldoiak" ba'lira bezala eraso gorritz ekiterakoan.

Euskotarrok ordea, badakigu, ziur, españiarrak ez generala. Orregaitik, ez gara autonomi batekin lasaitzen. Guretzat, autonomia askatasun osorako bidea besterik ez da. Euzkadi, osoro gura dogu Españi'gandik bereizi. Yaretasun osoa gura dogu gure Aberri bakarra dan Euzkadi'rentzat. Europa'ko alkartasunaren barruan, bai noski, baiñan, alfabetoaren araura "EU" izkiak "ES" eta "FR" izkien tartean dagozelako Españi eta Frantzi'ren artean Laterri yare nai dugu Euzkadi; Españi eta Frantzi bezain yare.

Oridalata, "aize-errotak" baiño milla bider geiago dira guretzat iEuzkadi'ren nortasunari dagozkion arazo guztiak "aize-errotak" ez baiña, egiazko "erraldoiak", etsai erioagarri agertzen jakuzan "erraldoiak", bait dira!

LATIEGI'TAR BIXENTE



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

IZKUNTZA POLITIKEA ETA EUSKEREAREN NORMALIZAZINO

Bakio mailako izkuntza politika egokia, zeatza eta iraunkorra egin bear dogu. Bakion Bakiorakoa.

Euskerearen garapena eta normalkuntza bultzatutako asmoz, euskera gure nortasunaren erakusgarri nabariena eta garhiena dalako, leentasunezko arreteta emon bearjako.

Euskerearen birreskurapena gure eskuetan dagoala eta ez ondorengoengan jakinda, euskerearen aldeko izkuntza politika serio baten ezarpen eraginkorra bear-bearrezko dogu. Au egia bihurtutako bateratasun eta adostasunik zabalena bear dogu erriko erakunde eta eragile bizien artean. Arik eta inplikaziorik aundiena bearrezkoa da, argi eta garbi, izkuntza politika eraginkorori sortuteko eta normalkuntza bidea ihili aal izateko.

Egingo dan izkuntza politika onek ildoak eta leentasunak argiro zeaztu bearko dauz arloka, au da, euskaldunen arteko euskerearen erabilera bultzatutea, ghettokerietan sartu barik. Ortik sortuko dan izkuntza plangintzeak be orreri lotuta joan bear dau.

Bakio erriak euskal berbadunei leku egiteak erabile-rea sustatutea dakar:

- euskera ondorengoentzat bermatutea.
- euskerearen oiko erabilera eremuak sendotutea.
- euskerearentzako erabilera eremu barriak irabaztea.
- hizitza sozialean euskera agoz zein idatziz egotea.

Izkuntza politikearen oinarria azterketa soziolinguistikoa da. Orren ondorioa, barriz, izkuntza normalizazino egitasmoa edo plangintzea da.

Azterketa soziolinguistikoaren emoitzen arabera eta abiapuntua ezagutu ostean, elburuak mailakatu eta epe labur, ertain eta luzean lortutako izan leitekezan elmugak ipini bear doguz. Onetan datza izkuntza politika egokia. Elbururik argiena eta aundiena euskera arlo, maila eta era guztietan -idatziz zein gagoz- gero eta geiago erabilatea da.

Azterketa soziolinguistikoak aldiro-aldiro egiten dirala, izkuntza politikea be, areen ondoren etab bearrizanen arabera birrikusi bearko dogu eta egunean-eguneango egoerari egokitu.

Administrazioak garrantzi aundia dauka normalkuntza bidean. Bere barruan euskera jakitea eta erabilatea bultzatu bear da. era berean edapen lana egin bear dau erriari begira. Kanpora nai barrura begira Udalak euskerearen normalkuntza bidean dauan garrantzi berezia azpimarratutekoa da. Udalak berak bideratu bear dau erriko normalkuntza prozesua.

Udalaren aldetik, borondate garbia bearrezkoa da. Borondatea ekintza bihurtu. Euskerearen aldeko ekimen pribatuek euskerearen egoera bera obetu leikee. Udalaren aldetik laguntza osoa bearrezko dabe orretarako. Udalaren aldeko jarrera politikoari nai ta naiezkoa deritxot. Ze, azken baten, euskera birreskuratutako borondatea erritarrengan lortu bear dogu, orretarako bearrezkoak diran baliabideak ipiniz.

Izkuntza politika eta plangintza orokorra indarrean

ipinteko, alkarlana eta Udalaren eta beste Erakunde Publikoen laguntza tekniko eta ekonomikoa ziurtatu bear dogu. Birreskuratze eta normalkuntza plangintza orretan, administrazioak eredugarri izan bear dau, erritarren aurretik joanez. Udalerrirako izkuntza jokabidea sortu ezkerokan, bearrezkoa da atzean bitarteko ekonomikoak eskuetan ipintea.

Buruan argi ta garbi euki bear dogu, euskera egunero bizitzan erabialteko dala. Eskaintza guztiak euskeraz, mezuak, iragarkiak. ...diruz Iagundu be. Sortuko diran bearleku barriak euskaldunez bete. Azken baten, euskerearen normalkuntzarako gitxienekoak bete bear dira. Ezin onartuko litzake ogi apurak emotea. Izkuntza gitxieneko eskubideen ordez, euskera zerbitzua erdikinetan ipiniko bagendu, esaterako.

Orain arte euskerearen ezagutza politikea nagusi izan bada, aurrerantzean erabilereari garrantzi berezia emon bear deusogu. Orretarako, udalerrri mailan, gure euskaldunak sortu bear doguz. Sare eta zerbitzu sozial guztiz euskaldunakaz. Euskeraz egunean-egunean bizitea dogu elburu. Orregaitik arreta berezia zor eta emon bear jako euskereari. Euskera adierazpide edo ondaretzat artuten dogun neurrian, izkuntza berezitatat bahestu bear dogu.

Izkuntza politikeek euskerearen birreskurapena bizitzako arlo guztietarako lortutea ezezik, aldaketa soziolinguistikoa be lortutea aalbidetu bearko leuke. Norbanakoarengandik asita. Norberaren izkuntzaren aldaketa bearrezkoa da eta. Era naturalean jazo eta borondatez izan bear dau. Geroagoko baten, izkuntza erabilpen aldaketa mailakatu lortu aal izateko. Erri ekimen eta asmo guztiak, bai gizarte, bai ekonomia, bai kultura edo politika arloan, bearrezko dira aldaketa ori lortuteko.

Erritarren artean izkuntzearen aldeko jokabideak garatutea agintari politikoen erantzukizuna da. Eurok oso-oson alde egon ezean, elburuak lortuteko ekintzez baina, ezin leiteke ezer ganorazkorik egin. Erri borondatea ekintza bihurtu bear dabe agintari politikoez eta edozein arlotan neurriak artuten dabezan lez, euskera izkuntza politikan be neurri argi eta garbiak artu bearko leukeez. Erritarren arteko norberaren izkuntzaz irudi txarra eukitea ez da normala eta. Orregaitik izkuntza politika sortutea bear-bearrezkoa da.

Amaituteko, izkuntza politikatik sortuko dan izkuntza normalkuntzarako plangintzeak urrengo arlorik nagusienean eragin hear dau:

- ezkuntzan.
- erri administrazioan.
- erri zerbitzuetan (osagilea...).
- kaleko izkuntza erabilpenean.
- sendiaren barruko izkuntza erabilpenean.
- udatiarrengan.

INIAKI MARTIARTU

EUSKALDUNEN AZTARNAK (V)

SINISKERI BARRIAK

– Eiztari euskaldunak aztikeriak zitun maite. Irudia eta gauzaren artean "adurra" deritzan indar berezi bat dago. Indar orren bidez, irudiari egiten diozun gaitza, gauzak berak jasoko du. Azkona irudiari biotz-parean sartzen ba'diozu, animalia berari sartu diozu.

– Orregaitik al daude leizeko ormeetan ainbat animalia ar azkona edo beste armeen arrastoa biotz-aldean dutenak?

– Bai eta aztia da, kiñuz edo itz misteriosoz, adur ori sortarazi leikeen gizakia... Baña, eizeari utzi ala (euskaldunak ez du eizea erabat laga), aztikeriak ez zion, bizia aurrera ateratzeko, serbitsurik egiten. Artaldeak mendian larraña bear dute eta larra ez da aztikeriz sortzen.

– Belarrak eguzkia eta ura bear ditu.

– Eguzki eta euriari azkikeririk egin ezin eta, ortik ara, siniskeri berriak sortu ziran Euskalerrria'n bezela Europa osoan ere bai... Argia bearrezko, ura bearrezko... eta oiek or goian dabilta gizonaren eskutik kanpo. Argiaren nagusi egunez Eguzkia.

Eta, gauez Illargia.

Argia, Eguzkia, Illargia, Zeru-sapaia... Orra jainko-txiki sail bat... Goiko Ortzitik datoz urak; baita ekaitzak, txingorrak, arriak... Beeko ibaiak eta iturriak... Goietako

Gar-mendiak, Basoak, Arbolak...

– Ez dira siniskerietarako gai gutxi!

– Aldi batean goiko Zeru Urdiña zirudien guztien jaina; baiña, Eguzkiak badu bere nagusitasuna... Etenik gabe-koak dira gure artean Eguzkiari buruzko siniskeriak. Kristauak berak ere, Jainkoaren Begi esango dio. Laiburua da bere irudia; lau edo iru edo bi edo bat... edo milla buru. Guztiak dira Eguzkiaren ikur eta irudi.

– Eta, uda-buruan eta negu-buruan egiten diran suak?

– Uda-buruko suak gaur San Juan Bautistaren izenean egiten dira Europa guztian; baña sorreran, Eguzkiaren omenez egiten ziran. Baita Gabonetakoak ere. Olentzaro mokorra euskaldun sukalde guztietan bizte zan Gabon egunean eta arbola-mokir arek bedeinkatzen zituen bere gañatik pasatzen ziran animalia eta gizakiak. Eguzkia orduantxe egoten da aulduta, burua ezin jasorik eta berpizten laguntzeko egiten ziran su oiek.

– Eta, guregana etorri ziran Europa'ko erriak?


Aiek ere artzai eta nekazari eta gu bezela aiek ere animistak. Or zituzten jainko txikien kopuru bizia eta jaun bat, guztien gañetik, Zeru-Urdiñ Ortzia. Euskaldunen siniskeriak osotu eta indartu zituzten. Eurak ekarri ziguten Laiburua eguzkiaren irudi eta ikurrin.

– Eta, Mari nun sartzen dezu?



Cmñilec h (Euskalerrri) (Altuna).

KONDAIRA



- Bereari eustea izan da beti gure aurrekoen oitura; naiz e5ta era berriak onartu, zaarrai ere eutsiko zioten: kobeetako aztikeriak galdu ziran eta aastu euskalduna artzai egin da gero, baña euren burutean dirau oraindik, aztikeriz betetako. Mari'ren irudia. Bera ere kobeetan bizi da, eta, atarian dagoenean, emakume ederra izan arren, oiñak ditu auntzenak edo egaztienak. Barruan, lurpeko eremuetan, animala itxura dute berak eta bere menpeko guztiak...

- Irudi ori gureraño eldu da.

- Aizken aldi ontako millaka urtetan, iñork ez zekien kobeetako barruko izkutuetan, animalien marrazkirik zegoenik (eun urte eskas dira aurkitu zituztela); baña, ango "lurpeko eremuetan" Mari eta bere animalien erreinua bizi zala, bai, ori bazekiten euskaldun kristauak. XII'garren eunkian, aymaric Picaud zionez, euskaldunek Jainkoari Urzia deitzen omen zioten. Itz zaarra Jainko berriarentzat:

Urtzi, Zeru urdiñaren Jauna.

- Baña, urtzi ortzia da.

- Urtzi, ortzi, osti... zeru urdi-ña da; baña, baita zeru orretako Trumoiak ere. Itz orretatik dator Ost-eguna, Zeru urdiñaren eguna, bizkaitar Egu-ena Egutik datorren bezela. Eta Egu, Zeru urdiñaren argia da. Biak berdin... Berba onek gureraño eldu dira.

- Eta, tximista?

- Ort eta Ost'etik datozen Oñ eta Oz sartzen dita tximisten izenetan: Oñeztu (tximistaren argizabala), Oñeztarri (Oñezt'en arria). Tximmistarri ere esan oi da. Europeoar siniskeria dakar berarekin itz orrek: Tximista, zerutik botatoko arrizko aizkora omen da... Orregaitik, aizkorak badu indar tximistaren kontra. Aizgorri'ko Zabalaitz aizkora, artzai-txabolaren atarian zegoen lurperatuta, tximistaren kontrako.

Ortik sortuko zan Odei jainko txikia?

- Zeanuri'n eta Orozko'n. Odei, eta Laño, ei da jainkoarik aundiena; bere esku daude ekaitzak. Europatarren artean. berak artu zuan Urtzi'ren lekua, Odei izenagaz. Gure artean. herriz. (Arratia'tik kanpo) Mari'k irauten du ekaitz eta tximista guzien nagusi.

- Eta, nun gelditzen da Eguzkia?

- Eguzkiak badu bere zera eta karda-lora bere irudi. Auxe josiko dute korta-atean, erramu bedinkatuakin egin-dako gurutze batekin batera. San Juan suak, lorak, arbola... guztiak ziran eguzkiaren ooretan. San Juan'ek bere lekua artu ha' du ere. Ura ere San Juan'ekin zer ikusi aundia du... eta sendatzeko birtuteak ere baditu.

- Eguzkia eta ura bearrezkoak dira artzaintza eta nekarizatzako.

- Neguko Gaboneko Olentzaro mokorrek eguzkiari laguntzen dio burura jasotzen, beeneko maillan dagoe-

nean... Gaur eguneko siniskriak izan dira, baña antxi-antxiñatik datoz zuzenean, bidean aldaketaren bat izan ba' du-te ere. Eguzkia eta sua, biak ibilli dira alkarrekin.


- Sua eta etxeko sutegia ere batera dira.

- Sutegia etxearen ardatza izan da; orregaitik, lurren mugarrietan sutegiko ikatza ipintzen zan oiñan'ian, guztien batasuna adierazteko. Baita ildakoena ere: ez da gauzez surik itzaltzen, errautsez estali baizik, ildakoek bear dutelako. Espiritu txarrak auxatzen ditu soroetan San Juan suak eta gauzez ekartzen dan ura, espiritu txarrez datorrenez, sutegiko ikatz batekin ikutu bear da garbitzeko.


- Eta, illargia?

- Eguzkiarekin batera dator illargia eta Europatarren artean, illargia udez betetako ontzia da. Gañera, illezkorra, illero il eta berpizten dalako. Ura, illargia eta ugaltasuna, irurak alkarrekin daude; eta ugaltasunean emakumearen antzera dabil illero. Argia eta illuna, bizia eta eriotza, illar-

EGUZKIAREN IKURRAK



HACHA CON ESVASTICA




HACHA DOBLE

DIVERSOS SIGNOS DEL SOL.
TANTO HACHA COMO ESVASTICA CON SIMBOLOS DE PROTECCION

SIGNOS SOLARES EN LAS COCINAS DE LABURDI Y BENABARRA



FRANCE



"HORZA".SUKALDEA

VIPUZCO,



13A/L
NAVI RRE


NAUARE

SOUL E /"

cSPAGNE

Philippe Veyrin. A. de E-F. 1931





gian ikusten dira garbi 28'egunero. Itxasoa bera ere, gora ta beera dantzan etenik gabe illargiaren aginduetara. Baita nekazariak ere, beti illargiari begira noiz aldatu eta noiz ebagi.

Zenbat izen ditu illargiak?

— Illargi, illetargi, argizagi, goikoa... Orra izen barzuek... Bere sustraitetan "argia" dago, eguzkiarenean "egu" dagoen antzera. Argi eta egu, biak dira berdiñak: Eguneroko argia, eguzkia; gaueroko argia, ilargia. II-argi bi itzez egiña dago: argi eta illa: ildako argia, illa bete, illun: orria iru gauza batera. Argizari izena, badirudi argi-ontzi edo, adierazi nai duela... Illargia emea da eta onela esaten giñun aurtzarroan: "Illargi amandrea / zeruan ze berri?". Jainkoaren aurpegi ere esan oi zaio...

— Oiek danak europeotarrekin batera dauzkaguz?

Zeru-urdiña, eguzkia, sua, illargia, ura, iturriak, igaiak euren Iamiñekin, mendiak, basoak Basajaun eta Basaanderekin, arbolak eta arriak, izaki mitologikoen oin arrastoekin... Mundi oso bat jainko txikiz eta sorgiñez beteata europatarrekin bat euskaldunen buruetan bizi izan diranak...

Oiek danak europatan-ekin batera dauzkaguz?

Europa'tik gurera etorritako erri aiek urte askotan irauñ zuten gurekin, lagun edo etsai, eta aizkenerako euren siniskeri guztiak geure buruetara pasa ondoren, zearo galdu ziran betirako, erromatarrek gure lur-aldeetan agertu ziran.

— Eta, nola galdu ziran?

— Iñork gaur oraindik, jakin ez. Errezak defenditzen

ziran goiko gallurretan bizitzeko oitura zuten, arri-esiz inguraturik. Artzaiak eta nekazariak izanik bazuten garia, bazuten ganadua, bazuten urrea eta brontzea eta azkenik, burnia lantzen ere iaioak izan ziran... Etxe illarak zituzten kale eta guzti... Lanbide asko eta, azkenik, merkataritza be bai.

— Gure ipuietako "jentillen" antza ematen dute.

Aiengandik ikasi genduan, bai Bizkaia eta bai Giupzkoa'n burni-lanak (burniaren tenplca San Martin Txiki'ri eskerrak ipuiak dionez).. Gure ipuietako Jentillek mendigañeko gazteluetan bizi ziran, aberatsak ziran urrez, bazuten ogi zur ederrabeta San Martin Txiki'k lapurtutako garia, baita burni lantzen jakintsuak ere... Beko ballaretako jendea bere mend zuzkatzen... Ataun'en beuren aurka ere jeiki ziran San Adrian'g zulotik aurrera bota arte Arabara' iño...

— Kixmi jaiotzean desagertu omen ziran...

— Jesus'eri deitzen orren zioten Kixmi; baña, ortan ez dotoz ba ipuiak eta historia. Arkeolojiak dionez, erromatarrek gurera ctortzean, orduan galdu ziran mendi-gallurretako atzerritar oiek Erromatarrek ballaretako bide zabaletik etorri ziran eta an egin zituzten euren erri indartsuak... Goi-koak alperrik zeuden eta larrez bete ziran. Oraintxen ari gera egoitza aien zazpi metro lodiko arri-esiak, baso-azpie-tan arkitzen... Jentillen antza ematen duten Europa'ko erri auk, eunka urte Kristautasun Euskal-erri'ra eldu baño lenago galdo ziran...

ARRINDA'TAR ANES

AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA -BAKION

Izkuntza Plangintza Orokor egokia errian indarrean jarri baino leu, izkuntzearen benetako egoera aztertu eta ezagutu bear da leenengo ta bat. Egoera esan dodanean, beste gauza batzuen artean. biztanleen jarrera be, aldekoa zein aurkakoa, esan gura izan dot.

Euskerearen egoera zeatzaren barri jakiteko, biderik egokiena izkuntza azterketea egitea izaten da. Zeatzago esanda, azterketa soziolinguistikoa. Orrek urrengo oinkadak egiteko eskatuko deusku:

ikerketarako teknikak zeaztu
neurketabidearen ezaugarriak zeaztu
euskerearen erabilpen errearen neurketak egin
kale neurketea egin:

* erabilera esparrua

* ume-gazteen arteko erabilera
umeakazko erabilera

eldu-adinekoen arteko erabilera

– jasoten diran informazio moetak sailkatu
ondorioak atara

Bein ori eginda egon ezkeru, bearrezkoa dan izkuntza plangintza dalako ori sortuteko, azterketa soziolinguistikoaren ondorioak oinarritzat artu bearu doguz. Plangintza orretan elburuak mailakatu eta epe labur, ertain eta luzean lortuteko erakoan izan daitekezan elmugak argiro itzi bear dira.

Ikerketa orrek euskerearen ezagutza. igorpena eta erabile-

rearen bilakaerea aztertea dau elburu. Dana aztertu bear dogu: berba egiteko gaitasuna zelangoa dan, bilakaerea zelangoa izan dan, euskereak aurrera ala atzera egin dauan, erabilera zelangoa dan, erabilerearen aldeko / aurkako jarrerak zelangoak diran. eta abar.

Errealitate objetiboari buruzko zertzelada eta argitasunak batu bearrekoak dira. Biztanleen oiko izkuntza erabilera eta izkuntza egoerari buruzkoak lortu bearu geunkez.

Euskerearen benetako erabilpenaren neurketea egiteko kale neurketea erabilten da. Guneetara artez-arte uurreratu, tartekorik erabili barik. Au da, itaunketak zein beaketak, alkarrizketak. eztabaida taldeak... erabiliz.

Euskerearen erabilpenean eragiten daben eragileak aztertu bearu litzakez. Familian egiten dan izkuntzearen erabilera eta igorpena aztertu. Erritarren euskerearenganako jarrera, berbadunen eguneko izkuntza inguru, euskerearen normalizazio erabagiei buruzko jarrerak... aztertu.

AZTERKETABIDEAREN EZAUGARRIAK

I.- Aztergaia zeaztu bear dogu:

1.- azterketea non egin.

2.- eremu geografiko orretan gizarte bizitzaren.

3.- azterketea egingo dan urte sasoa aukeratu (uda/negua).

IPUIN-SARIKETA 1996 (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

Urte guztietan lez, aurtan be Euskerazaleak Alkartek Ipuin-Sariketa eratzen dau. Ona emon urte guztietako egitaraua:

– Ipuñiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabiliaz idatziak izan bearu dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k araitaratu eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuñiak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuñiaren harrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2^o eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da. urterillan, baita DEIA Egunkarian he albat lasterren.

– Sariak lau izango dira:

1^o 40.000 pezeta.

2^o 30.000 pezeta.

3^o 20.000 pezeta.

4^o 10.000 pezeta.

– Ipuñiak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

B IZKAITARRAI B IZKAIERAZ

4.— adin-multzoak zeaztu.

Bestelango aldagai baztuk be geitu leitekez, argibide bereziagoak lortuteko asmotan: sexua, berbakideen kopurua, umeak aurrean egotea, izkuntzearen kalitatea....

11.— Azterlariek, ibilbide. egun eta ordu jakin orreetan, ka-lean aurkitzen daben jendea zein izkuntzatan daragoioen jaso bear dabe. Jasoten dana. bada. ez da itaunen bateri egindako erantzun subjektiboa, beaketa zuzen objektiboa baino. Lortutako emoitzen irakurketea egin bear da, unean-uneko errealitatea eta sasoi ezbardinetako zertzeladak alderatuz eta aztertuz.

JASO BEAR DOGUZAN ARGIBIDE MOETAK:

- 1.— Euskerearen erabilera eremuak.
 - 2.— Udalerriko auzoen arteko ezorekak.
 - 3.— Erabilpenaren bilakaerea: beera, bardin edo gora.
 - 4.— Belaunaldien arteko etena erabilpenaren ganean.
 - 5.— Sendiaren barruko izkuntza igorpena.
 - 6.— Sendi, gertuko komunitate, bearleku eta giro formalagoetako euskerearen erabilera.
 - 7.— Sexu eta adin-multzoen arteko ezorekak, izkuntza erabilpenari jagokonez.
 - 8.— Umeen eragina izkuntza erabilpenean, aurrean dagozanean.
 - 9.— Euskaldunbarri eta eskolan euskaldunduen izkuntza erabilera.
 - 10.— Erabilerean eragina daben eragileak.
 - 1 L— Izkuntza erabilpenagaz lotura zuzena izan daiteken beste ainbat gauza.
 - 12.— Izkuntza normalizazioari bunizko erritarren jarrerak.
- Azterketa soziolinguistikoa egiteko erabiliko dogun itaun-keteak zeatz eta onuratsu izan bear dau. Balio ez daben itaunak

edo erabilteko zailak diranak edo argibide gitxi emoten dabena kendu egin bear dira. Orrez gain, jasotako informazioa sailkatuteko bidea zeaztu bear dogu. Itaunketa orren zeaztasunak tekniko dan ikuspuntutik landu eta erabagi bear dira.

Beste aldetik, beaketak egitea bearrezkoa da, jazokerak diran lez jasoten diralako, jendeak ez oi daki beatu edo neurtua izaten danik eta.

Lortuko doguzan emoitzak, informazio osoa, batu eta arik eta mardulagoen argitaratua kaleratu bearko geunkez, ondorioak orreen arabera atarata.

Onelango lan erraldoia zeaztasun eta profesionaltasun osoz egin bear da. Udalak zein euskera batzordeak ikerketa au egiteko asikerako baldintzak jarri bearko leukeez. Onetarako, euskerearen aldeko erakunde zein taldeen arteko bateratze orokorra bear-bearrezkoa da. Azken baten, ikerketa onek izan bear dauan sinisgarritasuna bermatu bear da, lan serio eta sakona eginez. Badagoz Euskalerrian onelango bearretan diarduen baltzu espezializatuak. Onelango ikerketak egiten oituta, teknikarik aurretuenak erabiliz, euren bearra seriotasun eta profesionaltasun osoz egiteko gauza dira. zentzun-zentzunezko ondorioak atara aal izateko.

Eraginbide au guztiau Udalak buruzagitu bear dau. Azterketa au aurrera eroateko bear dan diruaz lagunduta. Beraz, Udalak aurrekontua gertu bearko leuke.

Ikerketa au aldiro-aldi egin bearko litzake. Olan, aldi ezbardinetan jasotako emoitzak alderatuz, aztertuz, euroatik ataratako ondorioen arabera Izkuntza Politikea unean-uneko egoerara egokitu aal izateko.

Lan au arik arinen asibear da egiten. Ez dago denbora geiago galdutekorik.

INIAKI MARTIARTU

EUSKERAZAINTZA
EUSKEREAREN
ERRI-AKADEMIA

1996-10-19

AITA SANTI ONAINDIA'ri

- IRUDIA **IPINTEA**

- OMENALDIA

EGITARAU

—Larra'ko Karmeldarren eleizan, 11 1/2'etan:
Ospakizuna: Neskak osotzen daben koruaren abestia.

Aita Santi'ren olerki baten irakurketa.

—Irudiaren inauruan, 12'etan:

Irudiaren bedeinkapena (Karmeldar batek)

Irudiaren aurkezpena (Euskerazaintzaren Lendakariak)

Aurrekua


Txistua

Bertsoak

Agur Jaunak

B azkaria

EUSKALDUNEN AZTARNAK (IV)



METAL AROA

Eneolitiko = Calcolitico. Tupiki-ama

– Zer da tupiki ori?
 – Berez sortzen diran metalak, historian zear, urrea eta zillarra (zidarra) dira. Ondoren agertu ziran urraida eta zirraida: bi oien aideak, familikoak edo itxurakoak. Urraidari gaur tupikia esan oi diote artan dabiltzan jakintsuek; baña, Joxe Miel Barandiaran'ek urraida (cobre) eta zirraida (estaño) idatzi oi zuen. Lanabesak eta armak egiteko, arriaren orde, lenengo erabilli zan metala, urraida zan, kobrea. Ez zuten oraindik luzaroan arririk utzi.

– Eta, brontzea nundik sortzen da?
 – Urraida eta zirraida alkarrekin urtu ezkeroz, sortzen da brontzea. Gure arten uraida gutxi arkitu da. Getaria'ko kai aurrean topa dituzte urraida edo kobre zatiak, bola erdien tankeran, barkuren batetik aspaldian erorita edo. Kobrezko armak, berriz, oso gutxi dira eta euroen berri emango degu aurreraxeago.

– Urraida emen sortu zan?
 Euskalerrri inguru asi ziran urraida edo kobrea erabiltzen, bai Ego-aldeetik, bai Ifar-aldeetik. Lenengo agertzen

diran lanak auek dira: lau-kuadroko ezten meeak, aisto aozabalak, azkon eta lantza muturrak, aizkorak... Burrugarako obeak ziran arrizkoak baño. Mailluz egiñak daude geienak eta batzuek badute urraida (estaño) ere naastean emen agertu direnen artean. Naparro'ko Ezkurra errian, urraidaiko aizkorak egiteko arri-latzezko moldea topa dute, bi molde batera erabiltzen diran oietakoa. Beraz, bazekiten urraida-kobrea moldeatzen.

– Eta, ildakoak?
 – Aurreragoko kapituluan aitaturako koba eta trikua-riak garai onetakoak dituzu. Bi eratako bizi-moduak zeuden orain 2.800 urte Euskalerrrian: bata Santimamiñeko koba da eredu eta bestea Elvillar'eko Los Husos leizea; bata Bizkaia'n eta bestea Araba'ko Erriosxa'n. Euren nekazaritza geiago dago, an baiño. Gaur-egun ere berdin gertatzen da. Beiak, auntzak, urdeak, zaldiak ezita berdin gertatzen da. Beiak, auntzak, urdeak, zaldiak ezita dauzkate; txakurrak zer esanik ez. Baña, eizerik ez dute era bat astu, oreña eta basauntza, batez ere. Jaten duten aragirik geiena baeiak ematen die, gero auntz-ardiek eta ondoren urdeak; eizeen artean oreña geiago da auntza baño. Artzaiak dabilta euren artaldeekin goruntz eta beeruntz, etenik gabe uda eta negu. Goruntz Akitania'n zear; beeruntz Ebro-ballaran zear;

KONDAIRA

baita Teruel'erañio ere. Joan etorri oietan aberasten da euren kultura. Urraida apurka eta nekez dator gurera. Donostia'ko San Telmo Museoa bazeuden 1956'ean zazpi arma urraida-koak.

- Zeintzuk?

- 1.- Iruzubieta'ko aizkora (Markina-Bizkaia); 2.- Doñana'ko aizkora (Trobiño-Araba); 3.- Zabalaitze'ko aizkora (Aitzgorri); 4.- Obieneta'ko azkona (Aralar) eta 7.- Aitzbitarte'ko lantza-muturra (Renteria). Analisis bat egin ondoren auxen agertzen da; Iruzubieta'ko aizkora (1) eta Obioneta'ko azkon-muturra (5) kobre utsak, eta oien antzekoak Iberia'ko Peninsulanerak dira. Obioneta beste azkona (4) eta Aitzbitarte'ko lantza-muturra (7) nikel dute naastean eta Ekialdeko Alpes'en antzekoak dira. Doñana'ko aizkora (2) Frantzia'ko Ego-aldeetik etorria da, andik zabaldu bait zan urraida-mota ori. Zalabaitze'ko aizkora (3) eta Uelagoe-na'ko punzoia, biak dira kobre uts-utsezkoak, eta orren antzejkko urraida Yugoeslavia'n eta Hungaria'n dago; andik etorri diran, jakin ez, ordea; bear ba'da, emen bertan ere egon zitekean orrelako kobreaapurka ba'da ere. Zalabaitze'ko aizkoraren urraidak badu %5 zirraidatik (estaño) eta orrek esan nai du, brontzeakin asita zeudela. Orkatzategi'ko koba-zuloan ere topa zuten, ildakoi lagungarri, urraidakko puñal bat 18 zentimetro luze, 3,3 zabal eta 0,4 lodi.

Brontze-Aroa

- Nungoa da brontze-aroa?


- Zalabaitzeko aizkora bide orretatik asita zegoen: %95 urraida eta 5 zirraida. Baña, benetako brontze-aroa Europa erdian agertzen da, Tumulu-errian. An daude benetako mai-xuak brontzea lantzeko: bitxikeri eta arma klase guztiak atezaten dira erri onen brontze-oletatik. Aizkorak ere alakox-seak dituzte: sendoak eta indartsuak; baita ezpatak ere... Aien ondoan uraidako aizkorak ez ziran ezer eta alaxen jabe-tu ziran Europa Ego-aldeko erri guztietan.


- Eta, gure artean?

- Baita gure artean ere Araba eta Naparroa'n. Garai one-kin agertzen dira gure artean olagintza (Ezkurra'ko aizkora-moldea, Larragain'go brontzeko aizkora...) nekazaritza Santimamiñeko taldean, trikuarrien loretxea eta europatarre-kin ar-emanak... Larragain'eko aizkora neurri auetara makurtzen da: %72 urraida, a5,7 zirraida, 0,12 nikel, 21 beruna. Beruna izaten dute, batez ere orpo aldetik, Atlanti-ko-aizkorak. Aurkitu izan dira beste pare bat geiago Euska-lerrian.

- Bizi-modua?

- Aurreko garaiaren antzeko; batez ere ganadua; eta nekazaritza geixego. Baita txerrikia ere. Koba kanpoko






bizi-lekuen arrastoak ere agertu dira gure artean Salvatierrabide'an, baita Aretxabaleta'ko Iruaxpe III'garrenaren azpiko egitura txabola borobil batena da; lau metro ditu batetik bestera erdian. Ildakoak berdin eortzen dira; baña, aldaketa bat asita dago: gorpuak errauts biurtzen dira eortzeko. Eta, aizkenerako era au izango da jaun eta jabe. Trikuarrien orde, lau arrizko kajatxo batzuek eta barruan ontzi bat errautsekin, edo ontzi gabe ere bai. Kutxa oiek lurrez estalita daude zabalgunen baten erdian; orixen da "tumulus". Gerora, tumulus orreri etzandako ariz kkoroi bat egiten diote; eta, aizkeneran, arri oiek zutik ipiñi. Auxe dacromlech bat. Tumulu oiek 176 daude Ifar-Euskalerrian, tumulu eta cromlech batera, beste 61 eta cromlech bakarrik, besterik gabe, 170... eta noiz-nai agertzen dira berri-berriak.

- Zer dira indoeuropeoak?
- Kultura baten jabeak eta gaur-egungo Europa'ko kulturareren sortzailleak. Orain berri, jakintsuek Indoeuropeoen jatorria Europa'n bertan ipintzen dute... Or goialdean, or zegoen Tumulu-erria, indoeuropeotarren kastakoa, brontzea lantzen nagusitasuna aberak zuena eta arma ederrez ornitua... Giro otsakin aspertuta, ego-alderuntz jo zuten erri osoak, bakoizak zuen guztiakin... Erriak, egoitzak, mendi tontoretan zituzten arri esiz ondo defendituak... Bazuten ar-

tzaintza, bazuten nekazaritza, bazuten olagintza naikoa erri xeeari brontzea zabaltzeko aña... Bitxia egiten iaioak... Europa ego-aldeko beste kultura guziak ondatu zituzten; baita izkerak ere... Itunen bidez ala ezpaten indarrez, berentzako egokiak ziran tontorrek aukeratu zituzten egoitzarako. Eraso-aldi orreri eutsi zion izkera bakarra Euskera izan zan eta gure artean dago oraindik bizirik, aien izkerak ilda gero. Irauten dute bai, izkera aien seme-alabak; baña, eurena il zan.

- Eta, nundik sartu ziran?
- Betiko izango dan sarreratik: Orreagatik. Andik Iruña'ra eta Iruña'tik beera batzuek Ebro-ballaraiño eta besteak zearka Sartaldera, Sakana'tik aurrera Araba'ko zabalgunera... Or utzi zizkiguten euren egoitzak izandako tokien izenak, erderaz Castro, Castrillo, Castillar, Castillette, Castillo... eta euskeraz Gaztelu... Esate baterako or daude euren egoitza famatuak izandako El Castro de las Peñas de Oro (Murgia), El Castro Castillo de Henayo (auek biak Araba'n) eta El Poblado de la Hoya (Laguardia); Nafarroa'n, berriz, El Castillar de Mendavia eta El Poblado de Cortes... ale batzuek aitatzeko eta famatuenak. Erri auen egoitzak eunka topa dituzte Nafarroa'n bezela Araba'n ere.
- La Hoya ori entzunda daukat.



– Jesus jaio aurreko milla baño urte geiagoetan bizi izan ziran Poblado orretan Europa'tik etorri ziranak. Tajuzko etxeak eta kaleak.. Ganadua eta ale-nekazaritza (garia) bazuten... Lan-bide asko zituzten eta merkataritza ere bai... Poblado aukeratu ere arri esiz inguratuak zeuden eta bazuen la Hoyak dorre bat sarreraren... Egoitzak mendi tontorretan zeudenez, La Hoya onek ere izango zuan Laguardia'ko tontorrean bere gaztelua.

Burni-aroa

Nun sortu zan?

Europa'n bertan La Tene'ko erria zabaldu zan eta uek izan ziran benetako olagizonak, burnia lantzen maixuak. Era guztiko annak eta lanabesak egiten zituzten eta Tumulu erriaren aideak... Lanerako bear diran tresna guztiak egiten zituzten; baita goldeak ere... Giro-otsak bota zitun beeruntz eta euren aurrekoen antzera eldu ziran gure Euskalerrira. Aiek egin ez zutena egin zuten aukeratu: Gipuzkoa eta bizkaia'n sartu eta euskal biotzean beuren mendi-tontorreko egoitzak jaso. Arri-esi galantez ondo babestuak.

– Bai, Intxur eta Marueleza...

Uste genduan ez zala besterik; baña, urteero ari dira berriak aurkitzen... Or dago Intxur, Tolosa gañean, Aldaba'ko errian Orieta eta Urola'ko ballarak elkartzeko diran uneartan, puntarren puntan... Ez genduen rte luzaroetan, 1956'tin onera, besterik ezagutzen; baña, buruntza'ko kastroa or

agertu da andoain'en; eta beste bat Muru-gtain mendian Aretxabaleta inguruan eta Deba ibaian beerago, Elgoibarren, beste bat Moru izenakin... Orra dozena erdi bat urteetan, iru egoitza berri. Guztiak goiko gañetan.

– Eta, Bizkaia'n?

– Berdin ari da gertatzen. Marueleza Nabarniz'en dago: bere aldamenean Gastiburu, euren illeria, topa dute. Aurrez-aurre, ? kilometro zuzenean, Gernika'ko ibaietik beste alde-ara, an agertu da Luno'ko egoitza eta aurrerago, Mungia alde-ara, Berreaga'koa... Muru eta gaztelu izenak badaude oraindik baztarretan eta geiago agertuko dira.

– Eta, or egon al dira?

– Or egon dira gu menperatzen eunka urte luzeetan bai Bizkaia'n eta bai Gipuzkoa'n ere. Olagizonak ziran, burnia lantzen zuten garia bazuten, ganaduak bzituzten, urre eta brontzean egiten zituzten beuren bitxiak, zeramika-ontzi ederrak egiten zituzten etortzean galdu ziran guztiak. Era bat. Jakintsuek ez dakite nola eta nun. Bear ba'da, ballaretako errietan urtuko ziran gure odolaren elemento A, Europa'ren goialdeko ezaugarria da, utzirik. Nun edo nundik artu genduan zerki ori... Erromatarrek ballaraz ballara zetozen euren bide zabaletatik, an goiko gañetara begiratzeke. Euren erriak, erri galantak eta aberatsak, mendien oñetan egin zituzten eta ez gallurretan. Bizia irauli egin zan e gañetako egoitzak eta beuren arri-esi guztiak, larrak jan zitun.

ARRINDA'TAR ANES

USO ZURIA (euskal ipuin zaarra)

Munduan beste asko lez, Atxondo baserri zuri, txiki, politean, senar-emazte ezkonbarriak oso zoriontsu bizi ei ziran.

Etxekoandra gazteak umetxu bat izan eban, eguzkia bera baino ederragoa.

Egun baten. etxekoandrea, bere umetxua artuta, landara joan zan. Eta bertan zugazpean jesarrita egoala, atso bat etorri jakon eta olan esan eutson:

— "Etxekoandra gazte, polita. Zure ule beilegi ederrak urregorizkoa dala emonten dau. Ulea orraztea gura dozu?"

Eta etxekoandreak ezer txarrik susmatu barik. baietz erantzun eutson.

Baina atso zaar, itsusia, sorgina zan eta ulea orraztuten asi jakonean, etxekoandra gazteari buruan orratz burubaltza sartu eutson. Andra gaztea, bat-batean, uso zuri biurtu zan eta egaz basoko bidea artu eban.

Orduan, atso sorgin dongea, umetxua artuta, baserrira joan zan eta benetako etxekoandra izan balitz lez biziten lotu zan an. Etxeko jaunak, ikusi ebanean, zurtz eginda itandu eutson:

— "Baina, emazte maitea, zelan zaartu zara orrenbeste egun batetik bestera?"

— "Sorgin donge batek. bere sorginkeriez olan jarri nau", erantzun eutson atso zaar, giizurtiak.

Arrezkero. Atxondo baserri ondora, egunero, uso zuri bat etorten zan eta, ara ta ona beti, etxe inguruan ibiltzen zan. Atso sorginak uso a ezin begi onez ikusi eta bein baten etxekojaunari olan eskatu eutson:

"Bialdu eizu emendik uso doilor ori! Zer gura dau, bada, egazti orrek euren?"

Alako baten, nagusiak uso zuria sareetan arrapatu eban bizirik, eta usutxua eskuaz maitero laztanduten asi zan. Buruan musua emon eutsonean, orratz burubaltza buruan josita eukala ikusi eta kendu egin eutson.

Une aretan bertan, basoko uso zuria, leengo etxekoandra gazte, ederra izatera biurtu zan, eta etxeko jaunak bere egiazko emazte maite, kutuna zana ezagutu eban.

A, bai, izan zala senar-emazte bien poza ta atsegina!

Andra gazteak bere senarrari sorgin dongeak egindako txarkeria esan eutson, eta etxeko jaunak sorgin doilorra erre egin eban.

Andik aurrera senar-emazte biak, Atxondo baserri zuri, politean, oso pozik eta zoriontsu bizi ei ziran.

Alan bazan, ez bazan, ez niri esan!

(erri ipuina)

INIAKI MARTIARTU

BERBALAPIKOA

landa = solo. larra.

beilegi = ori (margoa).

itsusi = motz, ezain.

bat-batean = beingoan, braustakoan.

zurtz eginda = arrituta.

doilor = ziztrin, zatar.

ATXAKIRIK EZ, MESEDEZ

Esaten dabe: euskerea oso gatxa dala ikasteko.

Euskerea egiaz maite dabenek ori ez deuskue esango.

Langile txarrik atxaki asko beti dauka lanerako.

Batzuk beingoan ikasten dabe ikasi gura dabelako.

Beste batzuk nagiagaitik

itzi oi dabe geroko.

Gauza bat orain gogoan artu egia aundia dalako.

Gure euskerea bear bagendu

ogi zuria jateko, aundi ta txiki, zaar eta gazte,

danak leukee ikasiko.

(BAKEA aldizkaritik atara ta egokituta)

INIAKI MARTIARTU

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpi-detza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geureaz onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK